


# **Irurako Plan Estrategikoa 2024-2034 diseinatzeko eta partaidetza prozesuaren eta harrera protokoloaren saioaren memoria**

**Irurako Udala**

2024ko azaroa



# Aurkibidea

Sarrera.....	3
Prozesuaren helburuak.....	3
Ibilbide-orria.....	4
Prozesuko parte hartzaileak.....	5
Komunikazioa: herritarrei parte hartzeko gonbidapena.....	6
Parte hartze prozesua.....	7
Ondorioak eta hurrengo pausoak.....	22
Eranskinak.....	24

# Sarrera

Irurako udalak herritarren nahi eta usteak kontuan hartuko dituen hausnarketa irekia bideratzeko eskaera egin zion Emuni eta prozesu horren nondik norakoak jasotzen dituen memoria txostena da ondoko hau.

Udalaren kezketako bat bada, azken urteotan Iruran egon den hazkundearekin, Ikastolara doan familia eredia ere asko aldatu dela eta Udalak bere ibilbidea egin duela eta Ikastolak berea, eta horiek biak lerratuta joan behar dute norabide berean lan eginez. Hausnarketa hau presente izan beharko da prozesuan zehar eta aurrera begira atera daitekeen balizko erronketako bat hori izan daiteke, herritar guztiek jakin dezaten herrian hezkuntza eskaintza badagoela eta ikastola aukeratzen ez badute horren atzetik dagoen arrazoia zein den ezagutzea.

Hori kontuan hartuta, plan estrategiko baten lanketa egin da herritarrekin; herriaren diagnostia egin, helburuak zehaztu eta datozen 10 urteetako plana osatzea hain zuzen. Prozesu honen bidez herritarren partaidetza sustatu eta harremanetarako beste eredu bat sortu nahi izan du Irurako Udalak. Hausnarketaren ostean harrera protokolorako proposamena landu da Udal Gobernuarekin eta udal teknikariek.

Horrenbestez, gakoa honako galderen gainean landu dugu: **Norantz joan nahi dugu? Zer-nolako herria izan nahi dugu etorkizunean?**

# Prozesuaren helburuak

## HELBURU OROKORRA

Proiektu honen xedea herritarren parte-hartzean oinarria izango duen eta Irurako etorkizuna irudikatzeko balioko duen hausnarketa-prozesua diseinatzea eta garatzea izan da. Hausnarketa-prozesu honek herri-ereduaren inguruko gogoeta partekatua bideratu du eta proiektu estrategikoak irudikatzeko ere balio izan du. Herri eredu horren inguruko hausnarketan eskolak duen paperaren inguruan ere hitz egin da.

Hau da, zehazki, etorkizuneko Irura irudikatzea, Irurarren asebetetze faktoreak kontuan hartuta, eta irudikatutako Irura horren ezaugarriak lortzeko egin beharreko bidea definitzea.

## AZPI-HELBURUAK

- Herritarrak ahaldundu eta inplikatzeko Iruraren intereseko gaien inguruko diagnostikoa (parte-hartzaileen pertzepzio subjektiboetan oinarrituta) partekatua egin eta beharrei irtenbidea elkarrekin eraikitzeko.
- Herri-ereduaren inguruan hausnartu eta herritarrek herriarekiko atxikimendua indartzeko urratsak ematea.
- Inklusio eta berdintasun maila handitzea herritarrak inplikatuz eta bizitza lokalean parte hartzeko duten gaitasuna indartuz.
- Herritarren partaidetzaren aldeko heziketa, sentsibilizazioa, prestakuntza eta komunikazioa bideratzea.
- Lan-ildoetan oinarritutako proiektu lehenetsiak irudikatu.

- Irurar berriekin jarraitu beharreko harrera protokolorako fluxua osatu, euskarriak sortu eta Udalak ongi etorri saio bat egin.

# Ibilbide-orria

## Irurako Plan Estrategikoa 2024-2034



# Prozesuko parte hartzaileak

## TALDE ERAGILEA

Prozesuari ekiteko, talde eragilea definitu eta martxan jarri dugu, ondoko funtzioekin eta parte hartzearekin:

GUNEAK	HELBURUAK / FUNTZIOAK	OSAKETA
TALDE ERAGILEA	<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Prozesua antolatu eta martxan jarri, egunerokoaren ardura izan</li> <li>▪ Beharrezkoa bada, prozesua tekniko metodologikoki egokitu eta bideratu (ekarpenik edo moldaketarik balego) zeharkako gaiak txertatzeko proposamenak eginez</li> <li>▪ Egitasmoa bideratzeko behar den informazioa jaso eta trukatu</li> <li>▪ Parte hartzaileen zerrenda osatu</li> <li>▪ Gainerako egiturak osatu eta martxan jarri</li> <li>▪ Saioen eta bileren jarraipena egin</li> <li>▪ Egitasmoari jarraipena egin, sor daitezkeen arazoan aurrean irtenbideak bilatu eta neurri zuzentzaileak jarri</li> <li>▪ Prozesuaren eta emaitzen balorazioa egin (lehen bileran aurreikusitakoa eta emaitza erkatuta)</li> <li>▪ Aurrera begirako proposamen zehatzak egin</li> <li>▪ Egitasmoaren ekintzak koordinatu eta bideratu</li> <li>▪ Saioen eta bileren jarraipena egin</li> <li>▪ Saioetako edukien lanketa egin</li> <li>▪ Beharrezko txostenak idatzi / berretsi</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Irurako Udaleko eta eragileen ordezkariak</li> <li>▪ Emuneko aholkularia</li> </ul>

## BILERAK

Lan talde eragileak hainbat bilera egin ditu:

- Prozesuaren hasieran, prozesua bera xehatu eta saioen helburuak ezartzeko.
- Saio bakoitzaren aurretik, saioaren helburuak, egitura, baliabideak eta azpiegiturak lotzeko.
- Lehen saioaren ondoren, saioa bera eta emaitzak baloratzeko eta bigarren saioa xehatzeko.
- Bigarren saioaren ondoren, balorazioa egin eta ondorioak ateratzeko, ondoren plan estrategikoan txertatzeko.
- Horrez gain, harrera protokoloaren ezaugarriak ezagutzeko udal teknikari eta arduradunekin beste saio bat egin zen.

## SAIOETAKO PARTAIDEAK

Iruraren etorkizuneko erronkak definitzeko egin den parte hartze prozesura herritar guztiak gonbidatu dira, herriko baliabide ezberdinez baliatuta.

Elkarrizketak 10 herritarrekin egin dira (7 emakumezko eta 3 gizonezko)

Egindako 2 parte hartze saioetan 23 herritarrek parte hartu dute 14 emakumezko eta 9 gizonezko.

Azkeneko saioa udal hautetsi eta Udaleko langileekin egin da eta hemen ere langile guztiak jaso dute saioan parte hartzeko gonbidapena.

## EMUNEKO PARTAIDEAK

Saioetan eta prozesu osoan zehar Emuneko bi teknikarik hartu dute parte.

# Komunikazioa: herritarrei parte hartzeko gonbidapena

Komunikazioaren helburu nagusia, prozesuko xede-talde direnen artean inpaktua eragin eta enpatia lortzea izan da, haiek prozesura erakartzeko.

Udalak bere eskura dituen komunikazio kanalak erabili ditu. Prozesua bera identifikatzeko logo bat egin da Udaleko komunikazioaz arduratzen den enpresarekin. Hemen irudia:



Prozesuaren berri eman eta parte hartze saioetan parte hartzeko gonbidapena herriko gidan albisteak jarri, herriko whatsapp erabiliz, herrian dauden telebista pantailetan deialdiak eginez eta etxe atarrietan jarritako oharren bitartez egin da.

Prozesu guztia jasotzen duen bideo bat ere egin da, bideo hori lotura honetan sartuta ikus daiteke:

[https://www.canva.com/design/DAGPCU9Jg78/GVFr9yMk6MdAr7AdAKZW9Q/watch?utm\\_content=DAGPCU9Jg78&utm\\_campaign=designshare&utm\\_medium=link&utm\\_source=editor](https://www.canva.com/design/DAGPCU9Jg78/GVFr9yMk6MdAr7AdAKZW9Q/watch?utm_content=DAGPCU9Jg78&utm_campaign=designshare&utm_medium=link&utm_source=editor)

Bideoa udalaren esku utzi da.

# Parte hartze prozesua

## DIAGNOSTIKOA

Prozesu osoa martxan jartzeko lehen-lehenik herriko informazioa jasotzea izan da egin beharrekoa. Horretarako bi mailatako diagnostikoa egin dugu: diagnostiko kuantitatibo arina eta ikuspegia osatzeko elkarrizketak.

### **Diagnostiko kuantitatibo arina**

Talde Eragileko kideek emandako datu kuantitatiboetan oinarritutako diagnostiko kuantitatibo arina egin da prozesuko saio parte-hartzaileetan gaur egungo egoera kokatzeko.

Horretarako Udalak esku artean dituen azterketa eta diagnostikoak Emunen eskura jarri ditu eta Hezkuntzak eta kasu honetan Ikastolak, herriaren kohesioan izan dezakeen eragina kontuan hartuta, berak dauzkan datu eta azterketak eskuratu eta aztertu ditugu. Gislanek egindako txostena eta etxebizitzaren inguruan egindako galdetegiaren emaitzak ere aztertu dira.

### **Ikuspegia osatzeko elkarrizketak**

Diagnostikoa osatzeko 10 elkarrizketa eta talde baten elkarrizketa ere egin ditugu, gaikako kokapena osatzeko oso balagarriak izan dira. Elkarrizketak egiteko pertsonen artean azken urte hauetan Irurara etorri diren herritarrak ere egotea interesgarri ikusi da, eta horregatik elkarrizketatu dira. Gero egin den parte hartze prozesuan ere beraien ahotsa kontuan hartzeko eta herria ikuspegi horretatik nola ikusten den mahai gainean jartzeko.

Elkarrizketa guztiak gero jaso diren arren, hona hemen elkarrizketatako hainbat datu interesgarri:

- ✓ Guztira 10 elkarrizketa egin dira
- ✓ Jatorri ezberdinetako pertsonak elkarrizketatu dira
- ✓ Seme-alabak beste ikastetxe batzuetara eramaten dituzten gurasoak
- ✓ Seme-alabarik gabeko talde bat elkarrizketatu da
- ✓ Gai ezberdinen inguruko galderak (jatorria, herriko harrera, Irurak dituen erronkak, etxebizitza...) egin dira

- ✓ Elkarrizketatutako guztiek Iruratik kanpoko jatorria dute (Nikaragua, Maroko, Katalunia, Valladolid, Kantabria...)

Bestetik, elkarrizketatuekin egindako saioetatik ateratako gaikako ideia nagusiak honako hauek izan dira:

LAN ILDOA	ATERATAKO IDEIAK
1. EZAUGARRI OROKORRAK	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Irura lo egiteko herria da</li> <li>• Ondo komunikatuta dago (errepidez, garraio publikoa...)</li> <li>• Herritarrak itxiak (bereizketa, bertan jaiotako eta beste jatorri batzuetakoak.</li> <li>• Zaila da bertan sartzea. Umeak badituzu errazagoa da.</li> <li>• Seme alabak Irurarekin identifikatzen dira</li> <li>• Umeentzako eta adinekoentzako herri lasaia</li> <li>• Lanerako aukerak badaude inguruan (hitzarmenak enpresekin)</li> <li>• Errepidea herri erditik pasatzen da.</li> </ul>
2. HIZKUNTZA	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Iruran euskaraz bizi dira herritar asko, ezagutza handia</li> <li>• Euskaraz ez jakiteagatik alboratuta sentitu dira</li> <li>• Udaletik euskarriak euskaraz (Qr bidez gaztelaniaz)</li> </ul>

LAN ILDOA	ATERATAKO IDEIAK
3. AZPIEGITURAK	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Gimnasioan eta kiroldegian espazio gutxi</li> <li>• Igerilekua behar da herrian (Bidegorri inguruan)</li> <li>• Aparkalaku gutxi( kamioi, autokarabanentzat lekua)</li> <li>• Parke txiki samarra (haur asko daude herrian)</li> </ul>
4. ZERBITZUAK	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Merkataritza zerbitzu gutxi</li> <li>• Ludoteka zerbitzua ondo baloratzen da. Ordutegi laburra.</li> <li>• Gaztelekua ondo baloratzen da</li> <li>• Ikastolara eramaten dituzte seme-alabak baina normala beste leku batzuetara joatea, ordaindu egin behar da.</li> <li>• Irurako ikastolan lekurik ez, Anoetara eraman</li> <li>• Medikuz zerbitzu zabalagoa</li> </ul>

LAN ILDOA	ATERATAKO IDEIAK
5. AISIALDIA ETA KIROLA	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Eskolaz kanpoko taldeak egiten dira, gaztetxo batzuk kanpoan geratzen dira (xare, eskalada, jolas hezi...)</li> <li>• Aisialdiko ekintzak; aldeak daude batzuk parte hartzaileak, beste batzuk ez dute parte hartu nahi (aisialdia kanpoan).</li> <li>• Aisialdiko ekintza gehiago astean zehar egitea komeni</li> <li>• Herriko aisialdi eskaintza guztietan parte hartzen dutenak badaude (tipi-tapa, jubilatuen elkarte...)</li> </ul>
6. ETXEBIZITZA	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Batzuk alokairan eta beste batzuk jabetzan</li> <li>• Etxebizitzarez prezioa garestia</li> <li>• Etorkizunean etxeak ondo ikusten dituztenak eta nahikoa dela esaten dutenak</li> <li>• Etxebizitza sozialen beharra</li> </ul>

LAN ILDOA	ATERATAKO IDEIAK
7. HARREMANAK	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Herrian gustura daude baina batzuetan kontuan hartuak izatea faltan botatzen dute.</li> <li>• Herritar guztiakin harremanak batzuk, beste batzuk, zirkulu itxiagoak (jatorri bereko pertonekin , eskolako komunitatearekin...)</li> <li>• Jubilatuen artean oso harrera ona</li> <li>• Herrian sartzea kosta egiten da</li> </ul>
8 .HARRERA	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Herri mailako harrerarik ez</li> <li>• Ikastolan harrera lantzen da</li> <li>• Anoeta kultur aniztasunarekin lotutako jaialdia egiten da (Iruran ez)</li> </ul>

LAN ILDOA	ATERATAKO IDEIAK
9. ERRONKAK	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Etxebizitza gehiago egitea (sozialak izatea, belaunaldi berriek herrian geratzeko aukera izatea)</li> <li>• Komertzio gehiago (harategia, arrandegia...)</li> <li>• Ostatua etekina ateratzea</li> <li>• Herritarren jarrera lantzea</li> <li>• Elkarbizitza eta herritartasuna landu behar da.</li> <li>• Medikuz zerbitzuak hobetzea</li> <li>• Euskara dakitenekin batera lantzea (mintza laguna...).</li> <li>• Hizkuntzaren trataera lantzea</li> <li>• Herriko zerbitzuak gehiago erabiltzea, liburutegia...</li> <li>• Herritar guztiei irekitako aisialdi ekintzak</li> <li>• Aisialdian herritarrak nahastea</li> <li>• Herritar berriak gonbidatzea</li> </ul>

## PARTE HARTZE SAIOAK

Behin diagnostikoa osatu eta gero, herritarrekin osatutako bi saio parte hartzaile egin dira..

Lehen saioa Irurako etorkizuna irudikatze saioa izan da eta bigarrean plangintza herritarrekin diseinatzeko saioa izan da.

Bi saioek 2 orduko iraupena izan dute eta Emuneko bi teknikariek dinamizatu dituzte.

### **Herritarrekin etorkizuna irudikatze saio irekia (1.saio irekia)**

Saio honetan, aurretik egindako analisia oinarri bezala izanda etorkizuna irudikatu dugu.

Parte hartzaileek honako galdera hauei erantzun diete:

Zer nolako Irura nahi dugu? Norantz joan nahi dugu? Zer-nolako herria izan nahi dugu etorkizunean? Non egon nahi dugu 10 urte barru? Zein nolako harreman egon behar du Ikastola eta Udalaren artean herriko eskaintzaren alde egiteko? Zer egin behar dugu herritar etorri berriak Irurar senti daitezen?

Zer nolako Irura nahi dugu? Non egon nahi dugu 10 urte barru?

- Herriaren alde lan egiten duten Irurarrak
- Irurarrak Iruran bizia egitea
- Herri lasai bat, txukuna
- Herria eta mendia zainduko duen herria. Auzolana
- Irurar kontzeptua aldatzea, hemen bizi dena izar dadila irurarra
- Kanpotik datorrenari HARRERA egitea
- Denda ezberdinak: harategia, arrandegia.
- Herritar kontzientzia; zaborra edukiontzietatik kanpo, txakur kakak, altzariak kalean behar ez den egunetan
- Irura bizia eta parte hartzailea
- Euskalduna
- Komunitate izaera duen herria
- Bizia (parte hartzailea...)
- Belaunaldien arteko sarea osatzen duen komunitatea
- Segurua, lasaia, irisgarria
- Euskaltzalea, berdina zalea

### **Irurarren beharrak zeintzuk dien galdetu zaie eta hauek aipatu dira.**

- Etxebizitzak gazteentzat, sozialak batez ere. Alokairu soziala (3 aldiz)
- Merkataritza: dendak beharrezkoak dira herrian, denetariko eskaintza izatea (2 aldiz)
- Trafikoa, plaza oinekoentzat
- Herri erditik pasatzen den errepideari buelta bat ematea (2 aldiz)
- Bidegorria
- Gaztean herrian geratzea nahi badugu eraiki egin behar da (baratzeetan ez)
- Herriak proposatzen dituen ekintzetan parte hartzea
- Gertutasunerako esperientzia eta komunitatearen balioa azpimarratzea bizitzak jartzen dizkigun egoera edo momentuen aurrean
- Harrera eta ongietorria etorri berrientzat

Iruran eskola bakarra dago ikastola baina familia batzuk beste herri batzuetara eramaten dituzte seme-alabak, atal hau espresuki landu nahi izan da eta erantzun hauek jaso dira:

### **Zer egin behar dugu herritarrek herritarrek herriko hezkuntza aukeratzeko?**

- Doakoa izatea
- Informazioa ondo azaldu beharra
- Ikusgarriagoa izatea
- Jendea konbentzitzea herrian eskolatua izatearen onuraz (ahoz aho, kanpainak egitea...)
- Kanpora joateko arazoak identifikatu eta arazoaren arabera konponbidea jarri
- Informatu etorri berriak
- Harrera ekitaldia egiten denean harriar dauden zerbitzu guztien inguruan informazioa eman
- Herritartasun sentimendua piztu eta garrantziaz ohartarazi
- Beste hainbat alderditan eragitea zaila da (ekonomikoa...)

Eta lehen saioa amaitzeko multzokatutako erronkak lehenetsi egin dira, jarraian paretan jarritako erronkak lehenesteko ariketa agertzen da.



Erronka hauek atera dira eta zenbakiak emandako bozka kopurua dira.

- Herria zaindu (1)
- Zibismoa, herritar kontzientzia (6)
- Denda ezberdinak (6)
- Herri bizia eta euskalduna (2)
- Komunitate kontzientzia duen herria (2)
- HARRERA (zerbitzuen berri eman, gonbidapenak prestatu, espazioak, kultur trukaketak (10)
- Espazioak oinezkoentzat (1)
- Etxebizitza sozialak (2)
- Komertzioa (konpromisoa) (1)
- Zaintza (1)
- Hezkuntza (7) Etorri berriei azaldu eta informazioa eman. Zailtasunak identifikatu.
- Herritartasuna (2)

## Plangintza herritarrekin diseinatzeko saio irekia (2. saio irekia)

Lehenengo saioan ateratako erronketatik 6 garatzea erabaki zen eta honako hauek izan ziren: harrera, hezkuntza, herria zaindu, komunitatea, herri bizia eta parte hartzailea(jarduerak eta ekintzak) eta zaintza.

Horrek ez du esan nahi gainerako erronkak ez direnik kontuan hartuko baina horietako batzuk nahita nahiez landuko dira, esate baterako etxebizitzaren gaia edo dendak jartzearena. Azken hau aurrera ateratzeko nahi adina esan daiteke baina dendak irekiko dituzten pertsonak behar dira. Udala 2 gai hauek lantzen ari da.

Eredu moduan testuinguru mapa erabili da eta bertan, inguruko eta beste herri batzuetan egiten direnak, dagoeneko daudenak eta aurrera begira egin beharrekoak zehaztu dira.



1. ERRONKA – HARRERA	
INGURUKO JOERAK BESTE ADIBIDE BATZUK	- Oiartzun, Zaldibia, Asteasu, Tolosa, (kultur trukaketa) urtean behin edo bitan ongietorri festa.
DAGOENEKO ZER ESISTITZEN DA IRURAN	-Erroldatzen den jendeari ahozko informazioa eta UEMA+Tolosaldea Garatzen eskuorriak
ZER EGIN NAHI DUGU IRURAN?	-Etortzen denari jakinarazi nora datorren eta zer topatu dezakeen. -Harrera gida -Komunitatearen parte sentitzea
ZER GIRO DAGO HERRIAN, HORRELAKO ZERBAIT EGITEKO?	Ez dakigu. Biztanle dezente dago egunerokoan herrian parte hartzen ez duena
NONDIK HASI? ORDENATU	1.-Harrera gida/protokoloa (eragile desberdinek osatuta) 2.-Harrerako pertsona prestatu 3.-Erreferenteak identifikatu eta prestatu

	<p>4.-Ongi etorri festa/aurkezpena</p> <p>5.-Hilabete batzuetara berriro harremanetan jarri</p> <p>6.-Ebaluazioa</p> <p>Ekarpenak:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>-Telegram talde batean parte izatea harrerako pertsonak, harrera protokoloan parte hartzen duten pertsonak.(5. erronkarekin ere lotuta)</li> <li>-Festetako programan jartzea bestearen lekuan eta ulertuko duen edo ez jartzen duena pentsatzea (5. erronkarekin ere lotuta)</li> <li>-Ze ekintza dauden azaldu (5. erronkarekin ere lotuta)</li> <li>-Beste hizkuntzetan ere mezuak zabaldu eta pertsona estrategikoak aukeratu. (5. erronkarekin ere lotuta)</li> </ul>
--	--

2. ERRONKA – HEZKUNTZA	
INGURUKO JOERAK BESTE ADIBIDE BATZUK	<ul style="list-style-type: none"> <li>-Matrikulazioko informazio gunea</li> <li>-Gurasoek egitea ikastolako bisita gidatuak</li> </ul>
DAGOENEO ZER EXISTITZEN DA IRURAN	<ul style="list-style-type: none"> <li>-Haur Eskolarekin harremanak</li> <li>-Ate irekiak</li> <li>-Bisita gidatuak</li> <li>-Matrikulazio kartelak, publizitate kanpainak</li> </ul>
ZER EGIN NAHI DUGU IRURAN?	<ul style="list-style-type: none"> <li>-Udalak harrera plana</li> <li>-Erreferentzia guraso/pertsonak izan, komunitate desberdinetan influentzia positiboa izan dezaten.</li> <li>-Kasu konkretu estremoetan gizarte zerbitzuekin elkarlana ume guztiek bazkaria izan dezaten...</li> <li>-Azaldu zergatik den garrantzitsua ikastolara joatea(herritartasunarekin lotuta)</li> </ul>
ZER GIRO DAGO HERRIAN, HORRELAKO ZERBAIT EGITEKO?	Udala eta ikastolaren aldetik lankidetzarako erabateko jarrera.
NONDIK HASI? ORDENATU	<ol style="list-style-type: none"> <li>1.-Udal harrera (Ikastola, gizarte zerbitzuak...)Gida.</li> <li>2.-Beka sistema eta udalaren laguntza sistemak (irteerena)ondo azaldu</li> <li>3.-Erreferentziazko pertsona/guraso (anitzak) identifikatzea, harrera planerako</li> </ol>

3. ERRONKA – HERRIA ZAINDU	
INGURUKO JOERAK BESTE ADIBIDE BATZUK	<ul style="list-style-type: none"> <li>-Auzolana: ez mendi garbiketan bakarrik, baita elkarrekin egiten diren ekintza guztiak ere.Horrek laguntzen du herria zaintzen, baita komunitatea egiten ere.</li> <li>-<b>Ekintza parte hartzaileak.</b> Adibidez antzerkia: herria ezagutu, lehenagoko ohiturak berreskuratu...</li> <li>-Auzolanean <b>kulturartekotasuna:</b> kantuak, sukaldaritza...herrialdeetako festak; argentinarraren astea, Extremadurako astea...</li> <li>-Auzolanean, <b>mendia garbitu:</b> bertako zuhaitzak landatu, mugak zehaztu...</li> <li>-<b>Laskibarreko</b> bidean moztutako zuhaitzak landatu: herrian jaiotako haur bakoitzeko zuhaitz bat landatu.</li> </ul>

	-Xarea egiten ikasteko ikastaroak.
DAGOENEKO ZER EXISTITZEN DA IRURAN	-Gau Beltzako ibilbidea egin zen auzolanean. Urte zahar egunean egiten den bilkura. Festetako playback, kantu bazkaria...
ZER EGIN NAHI DUGU IRURAN?	
ZER GIRO DAGO HERRIAN, HORRELAKO ZERBAIT EGITEKO?	
NONDIK HASI? ORDENATU	1.-Garai bateko ekintzak berreskuratzea: zuhaitz eguna, herri antzerkia... 2.-Auzolan ekintzak: garbitu... 3.-Orain egiten direnak mantendu 4.-Berriak: kulturartekotasun festak 5.-Haur jaio berriei harrera zuhaitzarekin

4. ERRONKA – KOMUNITATEA	
INGURUKO JOERAK BESTE ADIBIDE BATZUK	-Mundu bat Asteasun: Asteasu soka: Asteasu (haur eta gazteak) -Herri arteko txapelketak/kirolak
DAGOENEKO ZER EXISTITZEN DA IRURAN	-Xare jokoa -Ikastola Talde eragileak: Irura Bizi; Irura moretuz, IGA, Ametsa, P.E
ZER EGIN NAHI DUGU IRURAN?	DBHra joatean Iruran gelditzea denbora librean
ZER GIRO DAGO HERRIAN, HORRELAKO ZERBAIT EGITEKO?	Hotza. Beste kulturak zaila dute hizkuntza ez dutelako ezagutzen eta diruagatik. Nahi dute, hasi dira, Ttipi-ttapa... Gaztetxerik ez dago adibidez. Haiekin hitz egin zen eta ez zutela beharrezko ikusten esan zuten. Lokalen alokairua ere oso zaila dago.
NONDIK HASI? ORDENATU	

5. ERRONKA – HERRI BIZIA: PARTE HARTZAILEA, JARDUERA ETA EKINTZAK	
INGURUKO JOERAK BESTE ADIBIDE BATZUK	Iruran ekintza asko egiten direnez, ez dira adibide gehiagoren beharra ikusten. -Tolosan ipuin kontaketa hizkuntza desberdinetan Galtzaundik antolatuta. (Ez da zertan beti festaren inguruan antolatu behar).
DAGOENEKO ZER EXISTITZEN DA IRURAN	-Ttipi-ttapa: jendeak parte hartzen du eta kulturala ere bada, pertsona batzuk boluntario bezala zaintza egitera joaten dira, haien lekua han aurkitu dutelako.
ZER EGIN NAHI DUGU IRURAN?	
ZER GIRO DAGO HERRIAN, HORRELAKO ZERBAIT EGITEKO?	

<b>NONDIK HASI? ORDENATU</b>	<p>1.-Jende gehiago erakarri, nola? Ekintzak egiteko garaian beste kulturak kontuan hartu.</p> <p>2.-Herriko elkarte desberdinetan (Irura moretuz, Ttipi-ttapa...)parte hartzea bultzatu.</p> <p>3.-Harreran herriko ekintzak, jarduerak...xehetasunez azaldu: telegram, watsap...</p> <p>4.-Ikastaroak antolatu kultura desberdinentzat</p>
----------------------------------	--

<b>6. ERRONKA – ZAINZA:NAHI GABEKO BAKARDADEA</b>	
<b>INGURUKO JOERAK BESTE ADIBIDE BATZUK</b>	- Tolosan Nagusilan dago, eta boluntarioren bidez bakarrik bizi diren pertsonak bisitatzen dituzte, konpainia egiten diete, egoitzetan bisitatzen dituzte familiarik ez dutenak...
<b>DAGOENEKO ZER EXISTITZEN DA IRURAN</b>	<p>-Eguzki txoko.Ekintza desberdinak egiteko biltzen garen tokia da, han pertsona desberdinekin topatzen gara eta partekatu egiten dugu.</p> <p>-Irekiago izan.Iniziatibak izan Irurara iristen diren pertsonengana heltzeko.</p> <p>-Ttipi-ttapa ere elkartzen laguntzen gaituen ekintza bat da, ibili eta iritzi desberdinak eta errealitate desberdinak partekatzeke aukera dugu.</p>
<b>ZER EGIN NAHI DUGU IRURAN?</b>	-Pertsonengana hurbildu eta duguna partekatzerara gonbidatzea
<b>ZER GIRO DAGO HERRIAN, HORRELAKO ZERBAIT EGITEKO?</b>	Ostatua dagoenetik bizitza gehiago dago, eta belaunaldiarteko parte hartzea ea partekatzea dago.
<b>NONDIK HASI? ORDENATU</b>	<p>1.-Aukera badago Nagusilanekin harremanetan jarri hitzaldi bat jasotzeko eta haien programa ezagutzeko.</p> <p>2.-Udala ere inplikatzeko eta herritarrei zirkular bat bidaltzea informazioa denenganaino iristeko.</p> <p>Ekarpena: Iruran badaudela pisu tutelatueta dauden pertsonak eta ez dakigu.</p>

Erronkan azalpenarekin denbora dezente eman dugu eta prozesuak izan behar duen jarraipenaz, talde osoan hitz egin dugu. Egindako prozesua hasiera da eta aurrera begira ere hemen atera diren lantzen jarraitzeko herritarrekin eta eragileekin lanean jarraituko beharko dutela aipatu dute Udaleko ordezkariak.



## *ETORRI BERRIENTZAT HARRERA PROTOKOLOA*

### *UDAL GOBERNUAREKIN ETA UDALEKO TEKNIKARIEKIN HARRERA PROTOKOLORAKO SAIOA*

Hausnarketa estrategiko honen baitan behin ea berriz aipatu den puntuetako bat, irurar berriei egiten zaien harrera da. Azken 15-20 urte hauetan biztanle kopurua hirukoiztu egin da eta eskualdeko eta Gipuzkoako beste herri batzuetatik etorritakoak dira herritar asko eta horri gehitzen badiogu, Iruran ere, Gipuzkoako gizartean bezala norbanakoen prozesu migratzaileen ondorioz aldaketak eman direla errealitate anitz baten aurrean gaude.

Iruran ere kultura eta jatorri ezberdinetako lagunak bizi dira. Bakoitzaren kultura, ohiturak, hizkuntza ezagutu eta partekatzea, beti ere, erdigunean jarriz gure herriaren ezagutza, bertako historia, errealitatea, euskararen garrantzia... kontuan hartu beharrekoak dira bizikidetzaren egokia helburu badugu. Hori lortzeko erabateko garrantzia du lehen unetik harrera egokia egiteak, horrek lagundu baitezake gerora eman beharreko elkarbizitzan.

Jatorri ezberdinetako pertsonen gain azken urteotan, inguruko herrietako herritar askok erosi dute etxebizitza Iruran eta beraien seme-alabak Iruran jaio dira. Horietako batzuk ordea, beraien umeak, beste herri batzuetako eskoletara eramateko hautua egin dute eta horrek komunitatean eragin nabarmena dauka eta gai hori ere mahai gainean jarri da.


Iruran bizi diren pertsona guztiak, bertan edo beste herri batean jaioak izanik ere, irurarrak direla aintzat hartuta, "Irurar berrien Harrerarako Protokoloa"ren inguruko saio berezi bat egin da udal barneko langileekin.

Udal hautetsiekin eta langileekin egindako saioan gaur egun harrera nola egiten duten galdetu zaie eta zerbait aldatuko luketen.

Hona hemen esandakoak:

- Harrerara erroldatzera etortzen dira. Planoa banatzen zaie eta gizarte zerbitzuetatik pasatzen dira gehienak. Askotan denbora mugatua da, azkar batean egiten da dena.
- Euskararen eremura datozela azaltzea komeni da. Non zer dagoen. Bakoitzari bere hizkuntzan.
- Euskarriak hizkuntza ezberdinetan sortu behar dira.
- Arabieraz, frantsesez, gaztelaniaz, euskaraz UEMAK ematen duen materiala bana dakieke.
- Gaztelaniaz ikasteko Udalak kontaktatzen du, gizarte zerbitzuetatik. Bigarren kolpe batean euskara ikasteko aukera eman. Euskarak herrian duen pisuaren berri ematea komeni da.
- Liburutegira etortzen dira, KZ gunera eta zer dan eta nola erailtzen dan irakasten zaie.
- Idazkaritzan pertsonal teknikoarekin harremanetan jartzen dira.
- Kiroldagiko zerbitzuengatik galdetzen dute, azpiegiturak eta aulkiak

Harrerako ibilbide orria ere azaldu zaie, eredu moduan aurkeztu zen saioan.



Erroldara etortzen direnean betetzeko galdetegi eredu bat ere aurkeztu da.

**IRURA**

**ETORRI BERRIEK BETETZEKO GALDETEGIA**

Izena eta bi abizenak		NAN
		TEL:
		E-MAILA
Zein da zure lehenengo hizkuntza?	Zein hizkuntza ulertzen duzu?	Zein hizkuntza hitz egiten duzu?
Ezagutzen al duzu herria?		
<input type="checkbox"/> BAI <input type="checkbox"/> Herritarrak <input type="checkbox"/> Elkarteak <input type="checkbox"/> Baliabideak <input type="checkbox"/> EZ		
Zein zafetasun duzu gogoko?		
<input type="checkbox"/> Kirola	Zein?	
<input type="checkbox"/> Kultura	Zein?	
<input type="checkbox"/> Ingurumena	Zein?	
<input type="checkbox"/> Besterik?	Zein?	
Ondartzen dot informazioa bidaltzea atzeritarrtasunari loturiko galekin zerrikusia duten ikastaroel buruz BAI EZ		

**IRURA**

	DATUEN BABESA	PROTECCIÓN DE DATOS
<b>Arduraduna Responsable</b>	xxxxxxx	xxxxxxx
<b>Helburuak Finalidad</b>	Erroldatu berriek harrera egiteko jarduerara bat antolatzea, haien lehentasunen arabera.	Organización de un acto de acogida de nuevos empadronados adecuado a las preferencias de los mismos.
<b>Legitimazioa Legitimación</b>	Baimen bidez legitimatuta dago.	Está legitimado por consentimiento.
<b>Jatorria Procedencia</b>	Zuzenean interesadunak baimendu du.	Directamente de la persona interesada.
<b>Hartzailerak Destinatarios</b>	Ez dago aurreikusita hirugarrenen datu pertsonalik lagatzea.	No están previstas las comunicaciones de datos a terceros.
<b>Eskubideak Derechos</b>	Zure datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeke eta transferitzeko eskubidea erabili dezakezu, bai eta datuen tratamendua mugatzeko edo haien aurka egiteko eta baimena kentzeko eskubidea ere. Horretarako, idatzizko jakinarazpen bat bidali beharko duzu, nortasuna egiaztatzen duen dokumentuaren kopia bat erantsita, arduradunaren helbidera edo datuak babesteko ordezkariren helbide elektronikora. Eskubide horiek errespetatu ez direla litziz gero, erreklamazio bat aurkeztu ahal izango duzue Datuak Babesteko Euskal Agintaritzan. Informazio gehiago izateko, datuak babesteko gure politika kontsultatu dezakezu xxxxx.	Puede ejercer su derecho de acceso, rectificación, supresión, portabilidad de sus datos, la limitación u oposición a su tratamiento y la retirada del consentimiento mediante el envío de una comunicación escrita incluyendo una copia de su documento acreditativo de identidad a la dirección del responsable o al correo electrónico de Delegación de Protección de Datos. En caso de entender que no se han respetado dichos derechos, puede reclamarlos ante la Autoridad Vasca de Protección de Datos.
<b>Inf. Gehigarria Inf. Adicional</b>		Para más información consulte la Política de Protección de Datos xxxxx.
<b>Baimena Consentimiento</b>	<input type="checkbox"/> Baimena ematen diot xxxxx Udalari, adierazitako xedea betetzeko, nire datu pertsonalik erabili ditzan.	<input type="checkbox"/> Autorizo al Ayuntamiento de xxxxx el uso de mis datos personales para cumplir la finalidad mencionada.
	Izena: _____ NAN: _____ Data: _____ Sinadura _____	Nombre: _____ DNI: _____ Fecha: _____ Firma _____

Eta etorri berriei zabaltzeko eskutitz eredua ere azaldu zaie.

**ONGI ETORRI IRURARA!**  
**¡BIENVENIDO/A A IRURRA!**

Bizilagun agurgarria: Estimado/a vecino/a:

Herrian bizi garen guztiok osatzen dugu Irura, bai Iruran jaiotakoek, bai inguruko herrietatik, Estatuko beste leku batzuetatik etorritakoek, eta baita, munduko beste txoko batzuetatik iritsitakoek ere.

Aniztasuna, zalantzarik gabe, garapen eta berrikuntza iturri da; ezberdinen arteko elkarbizitzak gure komunitatea aberastu du eta Irura hobeto bat lortzeko ezinbestekoa da.

Udal zerbitzu ezberdinak aurkezteko asmoz eta elkar ezagutzeko bidean, Udalak zure familia gonbidatu nahi du 2024. urtean zehar Irurara bizitzera etorri diren pertsona guztiei zuzendutako ongi etorri ekitaldira.

Hitzordua ~~xxx:ten~~, ~~xxean~~, larunbatarekin, goizeko ~~xxx:ean~~ izango da, ~~xxx:n~~.

Berlan elkar ikusiko dugun esperantzaz agurtzen naiz.

Adeitasunez,

**Gorka Murua Makuso**  
Irurako Alkatea / Alcalde de Irura

**WELCOME TO IRURRA!**  
**BIENVENUE A IRURRA!**

Dear neighbour: Cher habitant, Chère habitante,

Irura is made up of all the people who live in the municipality, both those who were born in the town and those who have come from the surrounding municipalities, from other parts of Spain or from different corners of the world.

Diversity is, without a doubt, a source of innovation and development; and the presence of different people enriches our community and it is fundamental to building a better Irura.

With the aim of presenting the different municipal services, and as a first step toward mutual understanding, the council would like to invite your family to the welcome event organised for those who have come to live in Irura during 2023.

The event will take place on Saturday, ~~xxx~~, at ~~xx~~ a.m. in the Hall of events of the ~~xxxxx~~.

I look forward to meeting you there.

Best regards,

Irura est composée de toutes les personnes qui habitent la commune, aussi bien celles qui sont nées dans le village que celles qui sont venues des communes alentours, d'autres régions d'Espagne ou des quatre coins du monde.

La diversité est sans aucun doute une source d'innovation et de développement. Le vivre-ensemble entre différents enrichit notre communauté et est fondamental pour construire un Irura meilleure.

Afin de vous présenter les différents services municipaux et en guise de premier pas vers la connaissance mutuelle, la Mairie souhaite inviter votre famille à la cérémonie de bienvenue qu'elle a organisée pour les personnes qui sont venues habiter à Irura en 2023.

Le rendez-vous est donné pour le samedi ~~xx~~ à ~~xx~~ au ~~xxxxx~~.

Je vous salue dans l'espoir de vous rencontrer là-bas.

Recevez mes sincères salutations.

**Gorka Murua Makuso**  
Major of Irura / Maire d'Irura

Ondoren, gaur egun egiten den horretatik zerbait aldatu beharrik ikusten den galdetu zaie eta erantzun hauek jaso dira:

- Denbora gutxi, gauza asko batera.
- Batzuetan egiten den guztia presaka egiten da.
- Informazioa ematen zaie baina batzuetan komunikatzeko zailtasunak egoten dira.
- Txartelak zaborrak adibidez.
- Informazio asko.
- Pazientzia gutxi samarrarekin erantzuten zaion sentsazioa.
- Mugi txartelaren berri ematea ere garrantzitsua da.
- Eragileen parte hartzea ere garrantzitsua da. Ongi etorri saioa ez da helburua. Bide bat besterik ez da beste ildo batzuk martxan jartzeko aukera ematen dute.
- Zailtasunak jasotzea landu egin behar den gaia da. Nola egin eragileak erakartzeko? Gida garatu beharko litzateke.
- Familian baldin badatoz, adin txikikoak adibidez, kirolera eta ikastolara bideratzen dira, gero bakoitzak bere bidea egiten du.
- Zaintza zerbitzua ere eskaintzen zaie.

## PROZESUAREN ITXIERA

Talde eragilearekin azken bilera egin da eta bertan erabaki da herritarrekin saio ireki bat egitea prozesu guztiaren berri emateko. Azken saio hau azaroaren 18an egin da, arratsaldeko 18:00etan.

# Ondorioak eta hurrengo pausoak

Prozesua ondo joan dela esan daiteke, parte hartzaileak gustura aritu dira eta Udalaren helburuak bete dira.

Horren adibide, balorazio moduan esandakoak. Prozesuan bizitakoa azaltzeko kolore bat aukeratzeko eskatu zaie eta kolore hori zerekin lotzen duten.

- Laranja kolorea, pozik, ilusioa
- Erronka zailak dira baina positiboan noa saio hauetatik.
- Irura berdea da
- Eguzkirantz bidea egiten
- Epe luzera begirako lana da
- Gorria. Pasioz egindako zerbait, borondatez egindakoa
- Kolore berdea esperantzarena
- Kolore zuria. Koadro zuria pintatzeko zain
- Marroia. Lana da.
- Lan asko dago egiteko baina ondo egiten ari garen sentsazioa.
- Sentsazio positiboa
- Laranja kolorea gustura, oso aberasgarriak izan dira saioak

Azkeneko saioan esandakoak hauek izan ziren:

- Aurrera begira, prozesuak jarraipena beharko du, pausoak eman beharko dira, ezin da hausnarketa honetan geratu.
- Beste eragile batzuen parte hartzea ere ikusten da (harrera gidan adibidez).
- Talde eragilean ere aztertuko dira 2 saio hauetan esandakoak.
- Gai ezberdinen araberako lantaldeak osatu.
- Kultur mahaian ere jarraitu gaia lantzen.
- Kulturartekotasunarekin lotura bilatu behar zaio hemen landutakoari.
- Udalarentzat konpromisoa da, prozesuan zehar esan direnak aurrera eramateko konpromisoa.
- Inplikazioa beharko da eta eragile ezberdinen aldetik laguntza.

Herritarrekin egindako saioan esandakoak berriz honako hauek;

## HERRITARREN PARTE HARTZE SAIOKO OHARRAK

Gorkak esandakoak:

- Udal moduan harrerarekin lotutakoak aurrera eramango dira.. 2024an 84 pertsona berri etorri dira Irurara, gutxienez 23 familia berri (batez beste 3 laguneko familiak. Mugimendu handia eta asmatu egin beharko dugu ze informazio eman.
- Eudel eta Garapena Agentziak egin dituzten harrera ereduak hartu eta Irurara egokitutako harrera protokoloa jarriko dute martxan
- Harrerarako ardura izango duen pertsona bat kontratatuko da, gizarte langilea, harrerako gaiak eramango dituena. Gobernu taldean harrera nola egin pentsatzen ari dira, aurrez aurre egiteak pentsatzen ari dira. Neurria hartzeko zerbait egingo dute
- Gainerako gaiekin ere antzera jokatuko dute. Lantaldeak osatuko dituzte. Pauso edo urrats guztiek jarraipena beharko dute, herritarren aldetik fiskalizatu eta kontuak eskatzeko.
- Lantaldeetan parte hartzeko proposamena egingo dute.

Aurkezpenean egon direnek esandakoak:

- Ikastolako ordezkariak adierazi du, beraien aldetik prest daudela aurrera begira ere parte hartzeko. Oso gustura ibili dira prozesuan eta aurrera begira ere lantaldeak antolatzen badira parte hartuko dute.
- Zaila da hastera eta urrats hori eman dugu. Orain arte egindakoak norabait eramango gaitu.
- Oso ondo baloratzen dut prozesua , bide bikaina markatu dugu, lanena jarraitu behar dugu. Herria maitatzeko ezagutu beharra dago.
- Gauza batzuk tangibleak dira, beste batzuk ordea ez. Parte hartzearen inguruko balorazioa ere eskatu da. Beste saio batzuetan baino altuagoa izan dela aipatu da.
- Ondo, "habeis cogido buenas ideas"
- Alde handia dago berez hizkuntzarekin bazatoz edo ez. Euskararik gabe egon zaitezke herrian, baina oso gauza garrantzitsua da hizkuntzarena.
- azkenean jarrera kontua da, norberaren jarrerarena.
- herritik kanpo datorren pertsona bati harrera egokia eginez gero eta laguntza eskainiz gero, taldeetan parte hartzen hastera errazagoa da, inplikatzeko hastera errazagoa da.

# Eranskinak

## Elkarrizketak

### 1. Elkarrizketa

**Elkarrizketatuak:** Alicia Mateos, Belky Deyanira Fuentes, Virginia Rico eta Marlene Vieira. Lauekin batera egin dugu elkarrizketa.

**Beraien jatorriaren inguruan galdetu zaie, non jaio ziren eta noiz etorri ziren Irurara.**

Jatorria: Ibarra, Valladolid, Portugal eta Nikaragua.

Alicia Extremaduran jaio zen eta handik Ibarrara etorri ziren eta Ibaratik Irurara (20 urte daramatza hemen)

Virginia maitasunagatik. Valladolidetik etorri zen.

Belkyk 15 urte daramatza Iruran eta maitasunagatik etorri zen. Hernanin 2007tik

Marlene ikastera eta Iruran 2008tik. 2003an Hernanira eta Andoainen ikasi zuen. Marlenek kanpoan lan egiten zuen, alaba jaio zen arte ez zuen inorekin harremanik eta gainontzekoei ere antzeko zerbait gertatu zaie.

Irura La egiteko herria da. Ez da lotzen zaituen ezer egon hemen umeak jaio diren arte.

**Dendarik ez dago** eta hori gabezia handia da.

**Laskibarren oso ahaztuta gaude**, auzo bat dago. Errepideetako zarata gutxitzeko neurriak eskatu izan dituzte baina ez dute ezer lortu. 50 familia daude bertan. Gabonetako argiak ere ez dira jartzen haurrak eta adinekoak era badaude.

**Udako igerilekurik** ere ez dago, Asteasun edo Tolosan daude momentu honetan.

**Zergatik etorri zineten Irurara bizitzera?** Galdetu zaie eta erantzuna hauxe: "Etorri ziren etxe merkeak ziren, trena gertu, autobia ondo, umeentzako herri lasaia".

Umeentzako herri lasaia eta adinekoentzako ere bai. Garraio publikoa ere ondo, Tolosatik, Donostiara bitartean.

**Zerbitzuak:**

**Ludoteka zerbitzua** ordubetekoa da, oso motz geratzen da.

**Gazte-lekua** ostirala eta larunbatetan egoten da baina talde ezberdinak elkarrekin egoten dira, bereizi egin beharko litzateke. inbertsio handia egin dute eta hori eskertzekoa da.

**Identitatea.** Seme alabak identifikatzen dira Irurarekin. Denak ikastolara joaten dira.

Eskolaz kanpoko saiorik ez dago. Eskolaz kanpoko ekintzetan ere taldeak egiten dira eta bakarren batzuk kanpoan geratu behar izaten dute. Sare taldea, eskalada, jolas hezi. Aukera handiagoa beharko litzateke-

Eskola kirola ondo baina gurasoak rotatzen.

**Norbait ezagutzen al zenuen lehenagotik hemen? Eta Euskal Herrian? Eta lehenagotik ezagutzen zenuen EH? Eta euskara?**

Elkar ezagutzen dute. Batzuk harreman handiagoa beraien artean seme alabak eskolan elkarrekin dauzkatelako, Marlene eta Belky esate baterako.

Herritarrak itxiak dira. Taldetxoak daude. Taldeak egin dituztenak, Udaletik edo elkartu direnak baina talde horietan sartzea oso zaila da.

Ez dago beste pertsona batzuk ezagutzeko gogorik.

Guraso batzuk beste herri batzuetara eraman dituzte seme alabak, Ikastolako kuota ezin dutelako ordaindu, urtetik urtera igotzen ari da. Kuota, jangela igotzen ari dira.

Ingeleseko akademia badago baina garestia da.

**Eskolaz kanpoko ekintzak**

Zalantzan jarri dute, Udalak diru laguntzak ematen ote dituen estra eskolarrak egiteko.

Udalekuetan uztailan hamabostaldika egiten da, bietako bat edo hilabete osoa. Erraztasun gutxi.

**Hizkuntza**

Euskara ez jakiteak baztertua sentiarazi gaitu. Ez naiz ulertua sentitu.

Ez dizute harrera egiten inola ere eta horrek zure kabuz ibiltzera behartzen zaitu. Umeak dituzunean gauzak aldatzen dira baina hala ere zaila da leku jakin batzuetan sartzea.

Baztertuak sentitu izan dira. Elkarrizketatuetako batek euskara ulertzen du. Elkarrizketa hasterakoan euskaraz egin dut eta batek aipatu du joatekotan egon dela, galderak gaztelaniaz egiterakoan geratzea pentsatu du.

Udaletik banatzen diren liburuska eta oharrak ere euskaraz daude, jakin badakigu QRa erabilia gaztelaniara itzultzen dela. Batek aipatu du zuzenean zaborretara botatzen duela liburuska.

Goizpasa ere euskara bakarrik bidaltzen du baina ele bietan egiten da. Zerbait egin behar da jendea hobeto sentitzeko, helduek ere ez dakite euskara.

### **Harrera**

Harrerarik ez zitzaigun egin.

Udaletxe berriaren inaugurazioan, bertan izan zen bat eta hitz erdi bat ere ez gaztelaniaz, detaileak dira.

### **Lana**

Iruran ez dute lan egiten, erraza izan da lana aurkitzea.

Belkyk aipatu du gizarte zerbitzuekin izan zuela lehen harremana baina bere kabuz bilatu behar izan zuen lana. Zaila ez zitzaion egin.

### **Etxebizitza**

Erraza izan zen etxea bilatzea, kasuren bat alokairuan badago. Alokairua garesti daude.

### **Harremanak**

Beraiek ez dute parte hartzen antolatzen diren ekintzetan, salbuespena umeekin etortzen direnean.

Ikastolatik laguntza eskatzen dute baina batzuetan aukerarik ez daukate. Parte hartu beharko lukete? Denetarako eskatzen dute laguntza. Ikastolak mailegu bat dauka eta konplikatua da.

Pertsona batzuek sarao hauetan egotea gustatzen zaie baina nik ez dut herrian egon nahi, nahiago dut beste leku batera joatea, ez dago azalpenik eman beharrik.

### **Hezkuntza**

Beraien seme alabak ikastolara joaten dira, euskara badakite.

Batek aipatu du herriko beste batzuekin harremana daukala baina beste hirurek ez.

Guraso elkarterik ez dago. Kooperatiba da.

### **Erabiltzen dituzten baliabideak**

Frontoia, parkea, futbola. Gaztelekua erabiltzen dute, gaztetxoak herritik kanpora joaten dira.

### **Kultur ekitaldiak**

Kultur ekitaldietan ez dituzte parte artzen. Gauzatxo batzuk badaude, baina astean zehar liatuta ibiltzen dira baina aste buruan mugitu egiten gara. Asteburuak herritik kanpora joaten dira gehienak.

Astean zehar ekintza gehiago egon beharko lirateke. Ostatuak bizitza eman dio herriari

### **Zeintzuk dira zure ustez Iruraren behar nagusiak eta erronkak?**

- Etxe berriak egitea. Ondo ikusten dute, herrian geratzeko aukera emango luke, gazte asko dago
- Merkataritza sustatu; supermerkatu txikia, harategia, arandegia, frutadenda (Iruran badago). Udalak sustatu behar ditu.
- Correos, denbora luzeago

- Anbulatorioa, pediatria Villabonara joan behar dute. Familia medikua bakarra dago, Irura eta Hernialde hartzen ditu. Gain karga handia dute.
- Ostalaritza Aizpurua jatetxe itxi zuten. Bik ez zekiten itxita zegoenik ere.
- Paketeak jasotzeko puntu bat
- Behar bezeriak dituzten haur eta familientzat terapiak.logopeda seme alabentzat-
- Herritarren jarrera eta portaera, herritarrek ez dute errazten herrian sartzea. Irtenbidea ez da erraza baina jendea nahastu egin behar da.
- Eskolan elkarbizitza ona da, landu egiten dute elkarbizitza, denak elkar onartu behar dute. Seme alabek ez dute beraiek bezala bizi, etxean kontuz ibili behar da eta beraien sentitzen duten hori ez transmititu.
- Estoy un poco resentida.

## 2. elkarrizketa

**Elkarrizketatuak:** Asisa eta Mohammed. Eta beranduago etorri da Youness Hirurak Marokokoak dira eta arabea erabiltzen dute.

### **Etorrera:**

Asisa arabea, bereberea eta gaztelania badakizki.

Asisa Lanzarotetik etorri zen Irurara (2021)

Mohammed Tolosatik Irurara (12 urte daramatza). Gazterik etorri zen 21 urterekin. Euskara ulertzen du. Plazan Marokoko eta Irurako jendearekin egoten dira.

Asisa 3 seme alaba dauzka eta 1 ikastolara joaten da eta beste biak Anoetara (15-14 eta 10) Seme alabek badakite euskara.

Mohammed 2 ditu eta 1 haurreskolara joaten da eta beste ikastolara (6 urte eta urte bat daukate).

Hemengoak eta Marruekoskoa sentitzen dira. Beraien bizitza Iruran egiten dute eta hemengoak sentitzen dira

### **Harrera.**

Harrerarik ez

Ikastolan egin zioten harrera, ongietorria egin zioten. Seme alabak izatea jendea ezagutzea laguntzen du.

### **Lana.**

Lana aurkitzeko udaletxearen zerbitzuetara jo duzu? Hala bada, zeinetara?Lagungarria izan al zaizu? Zerbait bota duzu faltan? Lanbidera jo duzu? Noren bidez? Baliteke batzuk gizarte zerbitzuetara joan ez izana.

Tolosan lan egiten du Mohammedek taberna batean. Mohammed etorri zen eta lana aurkitu zuen zerbitzari moduan. 15 urte enpresa berean lanean ari da.

Asisa informatika ikasten ari da baina komentu honetan ez da lanean ari.

Asisak Emausen eta Gulan lan egin zuen (jostuna da Asisa).. Asisaren senarra gidaria da , Autobuses Daviden lan egiten du.

Harreman onak dituzte lankideekin.

Zerbitzaria izanik euskara erabiltzen du, euskaraz eskatzen diote eta berak normal ulertzen du.

Asisaren seme zaharrenari kosta egiten zaio hitz egitea. Gaztelania erabiltzen du jendearekin .

### **Etxebizitza:**

Erraza ez zen izan Mohammedentzat etxebizitza aurkitzea aurreiritziak egoten dira.

Asisaren koinatua aurretik Villabonan bizi zen eta horrela errazagoa izan zen.

Alokairuak garesti daude.

### **Harremanak:**

Herriko jendearekin harremana badaukate.

Herriko ekintzetan ez dute parte hartzen. Oinez ibiltzera, Ttipi Ttapara joaten da Asisa.

Ikastolako festetan haragia egoten da eta beraiek ez dute baimenduta. Horrelakoak kontuan hartu beharko lirateke. Ikastolara joaten dira eta Mohamedek asteburuan ezin du.

Barrikotean ez dute parte hartu adibidez.

Ostiralean edo larunbatez festa badago Ikastolako festa. San Migeletan parte hartzen dute.

Youness ez da ateratzen asko. Zuntz optikoa instalatzen ibiltzen da, erraza izan zen lana aurkitzea. 2019tik bizi da hemen, bere familiarekin. Bi alaba dauzka eta ikastolara joaten dira. Gustura bizi da herria lasaia da. Lehen Trintxerpen bizi zen (urtebete egon zen han) eta aurretik Andaluzian 2009tik.

Erroldatuta daude. Jatorri ezberdina duten pertsonak, laguntzen bila joaten direla aipatzen dute herritarre joaten dira gizarte zerbitzuetara baina beraiek lanean ari dira.

Kulturartekotasun jaia egiten da eta kultura ezberdinetako janariak eramaten dira besteak beste baina beraiek ez dute parte hartzen.

### **Eskola:**

Herrian bertan eta gero Anoetara eramaten dituzte 12 urtetik aurrera.

### **Herriko baliabide eta espazioen erabilera:**

Parkea, frontoia, trinketea eta gimnasioa erabiltzen dute.

Parkea txikia da, kolunpio gehiago beharko lirateke.

Garraio publikoa erabiltzen dute tren adibidez.

Denda faltan botatzen dute. Elikadurarekin lotutako supermerkatu txikia (oinarrizko gauzak, esnea...) Villabonan edo Tolosan erosketa handiak .

Gaztelaniaz ikasteko Villabonara joaten dira.

Euskara eta gaztelania ikasteko lekuren bat nahiko lukete. Younessean ama Villabonako EPARA joaten da

### **Elkarbizitza:**

Elkarbizitza egokia da, inolako arazorik ez dute inoiz izan.

#### **Aisia-kirola, zaletasunak**

Seme alabekin egotea, etxean egotea.

Ludotekara eta udalekuetara joaten dira beraien seme alabak.

Gaztelekura oraingo ez.

### **Irura ezagutzen duzu? Zentzuk dira zure ustez Iruraren behar nagusiak eta erronkak?**

- Etxebizitza gero eta zailagoa da.
- Etxe gehiago egitea nahiko lukete. Anoetan askoz etxe gehiago egiten dituzte. Lursailak badaude.
- Hiruak alokairuan. Erostea zaila da. Lana baldin badaukate hemen geratuko dira.
- Ikastolan oso ondo, oso ondo tratatzen gaituzte.

### 3. elkarrizketa

**Elkarrizketatuak: Marta eta Trini**

**Etorrera: Nongoak zarete? Nongoak sentitzen zarete?**

Tarragona eta Santanderrekoa dira. Marta 6-7 urterekin etorri zen Donostiara, bertan ezkondu zen arte. Amaran bizi zen eta ez zegoen oso gustura Amaran eta pisua saldu eta pisua bilatzen hasi zen eta hona etorri zen.

2 urte daramatza Iruran. Amorrua ematen dio gaztelaniaz ez ematea hainbat informazio.

Trini Tolosatik hona etorri ziren eta 2 urte daramatzate Iruran.

Oso gustura daude Iruran. . Faltan botatzen dute gauzak ulertzen laguntzea.

Batzuetan baztertuta sentitzen dira. Momentu batzuetan deferentzia pixka bat beharko litzateke.

Marta inaugurazio egunean etorri egin zen Udalera eta hitzaldi osoa euskara hutsean izan zen.

Askok gustatuko litzaioke ongi etorria beraiei ere ematea, ignoratuta sentitu ziren. "No le he entendido nada" esaten zuten horietako batzuk. Ongi etorriak esan besterik gabe.

Donostian ez zen euskaraz hitz egiten.

Martaren seme alabak hemengoak sentitzen dira.

Meza ele bietan egin zen orain dela gutxira arte baina ele bietan ez egiteko eskatu zaio.

Baina Iruran oso gustura daude.

Ekintza guztietan parte hartzen dute .

Txangoak, paseoak, gimnasia, memoriaren ariketa, kalkulua, kartetan jolastea, ekintza guztietan parte hartzen dute. Sofiak dendakoak esan zion animatzeko ekintzetan parte hartzea.

Ebanjelioaren taldera Trini joaten da, Marta ez da joaten.

Euskaraz kantatzen dute.

Euskarari ez diote maniarik.

**Lehen kontaktua**

Aurretik ez zuten ezagutzen Irurako inor. Trini 2012an etorri zen Tolosara. Harrera egitea ondo legoke, beraiek ez zuten jaso.

**Harrera:**

Martari lehen harrera etxea saldu ziotenak, asko babestu zuten bera eta harrera ona izan zuen. Martak 2 ahizpa Holandan dauzka eta harrera egin zioten. Hango adibidea ekarri du gogora.

Txillida lekuko eta Astigarragako sagarraren museoan egon ziren. Euskaraz egitea eskatu zuten jubilatutako taldekoek eta beraiek ez zuten ezer ulertu. Jubilatuen elkartearen egoteaz oso gustura daude.

Herritar guztiekin harremanetan dira bai bata eta bai bestea.

Herria ez da asko zaintzen, Martak zaborrak eta jaso egiten ditu. Gai hau behin eta berriz aipatu du.

Behoko bizilagunarekin harremana egin zuten eta gero galdu egin zuen arrazoi jakinik gabe. Kuadrila euskaldunetan sartzea ez da zaila, jubilatuen artean harrera ona jaso dute. Beraientzat da horrela, jubilatuen elkartearen badaudelako. Baliteke beste batzuentzat zaila izatea.

Gazteen artean buelta ematen ari dela ematen du, familiak elkarrekin daude eta poz handia ematen diote. Berak familian ez du hori bizi eta pena ematen dio. (Hau bere egoera pertsonala da)

**Etxebizitza:**

Erraza izan zen etxebizitza aurkitzea, inmobiliaria bitartez aurkitu zuten.

Aparkaleku arazoa dago, batez ere arratsaldetik aurrera.

## Zerbitzuak.

Kamioientzat ere lekua behar da, etxe ondoetan aparkatzen dute eta batzuetan balkoiaren azpian geratzen dira eta horrek arriskua dauka.

Autokarabanentzat ere ez dago lekurik.

Iruran lo bakarrik egiten duten pertsonak badira. Seme-alabak dituztenak parte hartzen dute nagusiki ekintzetan baina beste askok ez.

Fruta-denda ireki dute eta oso ondo. Harategi eta arrandegirik ez dago. Arrandegia garestia da. Botikak eta tabernak badaude. Kutxanbankaeko kutxazaina badago.

Komertzio gehiago behar dira.

Etxe gehiago ez dute nahi. Eskaera bat egon beharko litzateke gazteen artean. Altuera etxeena oso aproposa da, ondo eraikita dago, etxebizitza altuagoak ez.

Faltan botatzen dute osasun zentroa. Medikua, erizaina eta administratiboa daukate.

Ttipi Ttapan parte hartzen dute.

Igerilekua faltan botatzen dute, beraien ametsa hori da.

Liburutegira Tolosara joaten dira.

Iradokizun bezala ; euskaraz dakien norbaitekin egotea eta mintza praktika egite (erostera joateko, edo abisu bat emateko) Belarria egina egoteko.

Trinik lehen hizkuntza katalana dauka.

Mantsoago hitz egitea. Martak hiztegitxo dauka. Katalana jatorri latino dauka eta errazagoa da.

### 4. elkarrizketa

## Elkarrizketatua Said.

Said sahararra da. Etxebizitza txikia daukate, alokairuan daude. Prezioak goraka doaz.

Iruran 2 familia saharar daude, marokoarrak gehiago badaude. Ondo daude. Lan poltsa bat beharko luke Udalak. Udalak herriko enpresekin hitzarmena egitea herriko jendea kontratatzeko.

Gulan Irurako jendea hartzen dute esate baterako.

Alokairu soziala behar da. Udalak hemen ez du hori bultzatzen eta gazteentzat behar da.

## Hezkuntza eta kirola

Seme alabak Anoetako ikastolara joaten dira. Ez dago lanean, subsidioa kobratzen ari da.

Kiroldegian eta gimnasioan espazioa behar dute. Bere seme alabak 22 eta 8 urte bitartekoak. Alaba zaharrenak kiroldegian lan egiten du.

Irurar etorri zenean, Anoetara eraman zituen seme alabak. Lehenengo etorri zenean ikastolan plazarik ez zegoela esan zioten.

Anoetako jende gehiagorekin egoten da (harreman handiagoa).

Gizarte langilearekin asko egoten da. Zailtasunak etxebizitzak aurkitzeko, ezin zen aurkitu. Gaztela Mantxatik hona etorri ziren, seme alabak hemengoak dira, ez dute hemendik joan nahi. Kulturartekotasun festan parte hartzen dute. Bere emazteak Saharako janariak prestatzen ditu, gozoak, cuscusa. Gena ere prestatzen du.

Bileretan parte hartzen du, Tolosaldea garatzenen. Elkar ezagutzeko egimen gehiago behar dira.. Festetako programan ez dago beraientzat erakargarria den ezer. Inork ez nau ezertara gonbidatu maila pertsonalean, adibidez barrikote egunean etortzeko. Etortzen direnean umeekin etortzen dira.

Euskara ikasten ari da.

gizarte zerbitzuetan ondo.

## Zerbitzuak

Frontoia, parkea erabiltzen ditu eta futboleko ibiltzen da  
Maialenekin egoten da Irura biziren bitartez.

# Saioetako aktak

Saioetako aktak alde aurretik bidalita daude.